

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Bestalde, jarduera gakoak hirutan banatuta daude; produkzioa, arazoen konponketa eta Plataforma eta Sareen jarduerak. Jarduerak hauek, baliabideak bezala, funtsezkoak dira enpresa aurrera eramateko, hala nola, gure balio-proposamenaren eskaintza hedatzeko. Gure enpresako helburu nagusia, arriskuan dauden pertsonak laguntzea da.

- **Produkzioa:** Larrialdietarako eskumuturrak ekoitzi. Ekoizpena guk egindakoa izango da, ez dugu azpikontratatu.

- **Arazoen konponketa:** Bezeroak gure produktuarekin izan ahal dituzten arazoak (apurketak, ez ibiltzeak) konpontzen saiatzea.



- **Plataforma eta sarearen jarduerak:** Gure sare sozialen bidez, bezeroei sortu ahal zaizkien zalantzak konpondu, eta gure webgunearen bidez, gure produktuaren enkarguak egin eta eskumuturrak saldu.

- **Publizitatea:** Erakunde publikoen bidez egingo dugu publicitatea, eta gure partez, sare sozialen bidez, hala nola, Twitter (@Secureband\_Sestao) eta Instagram.

